# Salon

# Open Call

## GETXOARTE 2018 BARNEKO “ARETOA” PROGRAMA ESZENIKOKO DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

### 1. Xedea

Kultur Etxeak GETXOARTE 2018ren barnean ARETOA PROGRAMAren oinarri arautzaileen deialdia eta onespena publiko egin ditu, artea eta praktika garaikide eszenikoei laguntzeko, horiek hedatzeko eta sustatzeko helburuarekin. Arte plastikoekin lotutako hamar (10) proposamen aukeratuko dira, eta oso garaikideak izango dira, eta forma mistoak edo metodologia esperimentalak ikertu ahal izango dituzte.

Proiektu horien adierazle bezala, aukeratutakoek ARETOA PROGRAMAren testuinguruan erakutsiko dituzte lanak, topaketa eta erakusketa esparru batean 2018ko abenduaren 14an, 15ean eta 16an, RKE Romoko Kultur Etxean.

ARETOA izeneko ekimenak bere lan esparrua berritu du eta hala, hausnarketarako espazio bihurtuko da, praktika artistikoarekin lotura duten proposamenen inguruan hausnartzeko hain zuzen ere. Erakusketa espazio honekin batera komisarioen topaketak egingo dira, eta mintegiak, tailerrak eta saio magistralak egongo dira, parte-hartzaileek kalitatezko esperientzia profesionala izan dezaten.

### 2. Baldintzak

ARETOA PROGRAMA artisten profilari zuzenduta dago, merkataritza ordezkapena dutenei eta ez dutenei, ibilbide profesionala hasteko prozesuan baldin badaude.

Praktika artistiko garaikidearekin eta ikerketa praktikoko prozesuekin lotura duten proiektuak aukeratuko dira (pintura, eskultura, soinu artea, bideoa, instalazioa, zeramika, grabatuak, etab). Proposamenak indibidualak edo kolektiboak izan ahalko dira. Praktika eszenikoak kanpo geratuko dira, horiek “El Respiradero” izeneko programa eszenikoaren xede izango baitira Getxoarte 2018ren barnean.

Aukeratutako proiektuak Getxoarte 2018ko ARETOA PROGRAMAN sartuko dira, eta ekimenaren aurreko hilabeteetan jarraipena egingo die programaren komisarioak. Hala, azken aukeraketaren berri emango du eta laguntza emango die lanaren prozesuan zehar.

18 urte baino gehiagoko pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute, administrazio auzotasun nazionala dutenek.

## BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA DEL PROGRAMA ESCÉNICO “SALÓN” GETXOARTE 2018

### 1. Objeto

El Aula de Cultura, hace pública la convocatoria y la aprobación de las bases reguladoras del PROGRAMA SALÓN dentro de GETXOARTE 2018, con el propósito de apoyar, difundir y promocionar el arte y las prácticas contemporáneas escénicas. Se seleccionarán diez propuestas (10) relacionadas con las artes plásticas, que tendrán un marcado carácter contemporáneo y que podrán explorar formas mixtas o metodologías experimentales.

Como muestra de estos proyectos los/as participantes seleccionados/as mostrarán sus trabajos en el contexto del PROGRAMA SALÓN, en un formato de encuentro y exposición durante los días 14, 15 y 16 de diciembre de 2018 en RKE Romoko Kultur Etxea.

SALÓN renueva su marco de trabajo para convertirse en un espacio de reflexión sobre propuestas vinculadas a la práctica artística. En paralelo a este espacio de exhibición tendrá lugar un encuentro de comisarios/as y una programación de seminarios, talleres y clases magistral orientados a ofrecer a los/as participantes una experiencia profesional de calidad.

### 2. Requisitos

PROGRAMA SALÓN está orientado a un perfil de artista, con o sin representación comercial, en proceso de inicio de su carrera profesional.

Se seleccionarán proyectos vinculados a la práctica artística contemporánea (pintura, escultura, arte sonoro, video, instalación, cerámica, grabado, etc.) y a procesos de investigación práctica. Podrán ser propuestas individuales o colectivas. Se excluyen las prácticas escénicas, que serán objeto del Programa escénico “El Respiradero” dentro de Getxoarte 2018.

Los proyectos seleccionados serán incluidos en el PROGRAMA SALÓN de Getxoarte 2018 y durante los meses previos al evento tendrán un seguimiento por parte del comisario del programa, que facilitará la selección de la muestra final y ofrecerá apoyo curatorial y acompañamiento en el proceso de trabajo.

Taldeka parte hartzekotan, ordezkari bat izendatu beharko da, Kultur Etxearekin harremanetan egoteko.

**3. Laguntzak**

Getxoarte 2018 barneko ARETOA PROGRAMAk aukeratutako 10 proposamenentzat erakusketa kolektiboko espazio bat emango du komisarioarekin elkarrizketa bat izan ondoren.

GETXOARTE 2018k argitalpen espezifiko bat editatuko du, eta horren bitartez jakinaraziko dira aukeratutako lanak. Hala, argitalpena ARETOA ekimenean aurkeztuko da abenduaren 14an, 15ean eta 16an, RKE Romoko Kultur Etxean.

Aukeratutako 10 proposamenek 700,00 euroko sari bana jasoko dute.

Ordaintzeko 7.000,00 euroko aurrekontu kontsignazioa dago, Kultur Etxea TAOren aurrekontuaren kargura, 003-33400-2260600 egozte aurrekontu partidan.

**Getxoarte eskuratze saria**. Gazte artisten ibilbideari laguntzeko eta artisten ibilbide hasierako obren babesa errazteko, ARETOA PROGRAMArako aukeratutako artisten lanak kontuan hartuz, Getxoko Kultur Etxeak 2018ko abenduaren 14an, 15ean eta 16an erakutsiko diren obretako batek sari gehigarri bat jasoko du.

Saria 2.000,00 eurokoa izango da (zergak barne) eta lana Getxoarte-Artium bildumaren barne sartuko da. Obra hori, ezarritako hitzarmenaren arabera, Arabako Artium Bildumako biltegian kalitatez sartzeko proposatuko da. Saria hutsik geratu ahal izango da, epaimahaiak egokitzat jotzen baldin badu. Epaimahairen erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik egin.

Eskuratze sariari dagokion kopuru ekonomikoa ordaintzeko 2.000,00 euroko aurrekontu kontsignazioa dago, Kultur Etxea TAOren aurrekontuaren kargura, 003-33400-4820000 egozte aurrekontu partidan.

Sarien ordainketari % 19ko deskontua egingo zaio, PFEZaren atxikipen gisa, indarrean dagoen araudia betetze aldera.

Deialdia eta emandako sariak jakinarazteko Diru-laguntzen datu base nazionalera bidaliko dira

Podrán participar todas aquellas personas físicas mayores de 18 años, con vecindad administrativa nacional.

En caso de participar en grupo, deberá designarse un/a representante para la interlocución con el Aula de Cultura.

**3. Prestaciones**

El PROGRAMA SALÓN dentro Getxoarte 2018 ofrecerá a las 10 propuestas seleccionadas un espacio de exhibición colectiva a partir de un diálogo con el comisario.

GETXOARTE 2018 editará una publicación específica que dará cuenta de los trabajos seleccionados y que se presentará durante la celebración de SALÓN, los días 14, 15 y 16 de diciembre en RKE Romoko Kultur Etxea.

Cada una de las 10 propuestas seleccionadas recibirá un premio de 700,00 euros.

Para el abono se cuenta con consignación presupuestaria por importe de 7.000,00 € euros, con cargo al presupuesto del OAL Aula de Cultura, partida presupuestaria de imputación 003-33400-2260600.

**Premio-adquisición Getxoarte.** Con el fin de apoyar la trayectoria de los/as jóvenes artistas y facilitar la protección de las obras de inicio de carrera, de entre los/as artistas seleccionados/as para el PROGRAMA SALÓN, el Aula de Cultura de Getxo otorgará un premio adicional a una de las obras expuestas durante los días 14, 15 y 16 de diciembre de 2018.

El premio consistirá en una dotación económica de 2.000,00€ (impuestos incluidos) y su inclusión en la Colección Getxoarte-Artium. Esta obra, según convenio establecido, será propuesta para su inclusión en calidad de depósito en la Colección Artium de Álava. El premio podrá quedar desierto si el jurado así lo estima oportuno. La decisión del jurado será inapelable.

Para el abono de la prestación económica correspondiente al Premio-Adquisición, se cuenta con consignación presupuestaria por importe de 2.000,00 € con cargo al presupuesto del OAL Aula de Cultura, partida presupuestaria de imputación 003-33400-4820000.

El abono de los premios llevará aparejado el correspondiente descuento del 19% como retención a cuenta del IRPF en cumplimiento de la normativa en vigor.

La convocatoria, así como los premio concedido se hará público mediante su envío a la BDNS (Base de Datos Nacional de Subvenciones).

**4. Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epeak**

Aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Dokumentazioa mezu elektroniko bitartez bidaliko da **getxoarte@getxo.eus** helbidera edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan aurreikusitako lekuetan aurkeztu ahal izango da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a. Eskabidea, beteta (I. ERANSKINA). Webgune honetan eskuratu daiteke: **www.getxo.eus/getxoarte.**

b. Eskatzailearen NANaren kopia (taldea aurkezten baldin bada, pertsona hori taldeko ordezkaria izango da); pertsona hori izango da onuraduna.

c. Errolda ziurtagiria. Getxon erroldatutakoen kasuan, nahikoa izango da inguruabar hori adieraztea, eta ofizioz egiaztatuko da.

d. Eskatzailearen erantzukizun adierazpena, bere zerga betebeharrak, Getxoko Udalarekin, Bizkaiko Foru Ogasunarekin edo beste foru edo estatu ogasun publiko batekin, eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkala adierazten duena. (I. ERANSKINA). Ziurtagiria ebazpena eman ondoren eskatuko da.

e. DIN-A4 formatuan egindako txosten bat. Mezu elektroniko bidez bidaliz gero, word eta pdf formatuan bidaliko dira hauek:

  * CV eta BIO artistikoa, gehienez ere 10 lerro edo 150 hitzekoa. Bertan adierazi beharko dira esperientzia eta/edo arte plastikoei eta praktika garaikideari lotutako prestakuntza.
  * Artistaren statement delakoa, gehienez ere 10 lerro edo 150 hitzekoa (artistaren adierazpen orokorra bere obrari buruz).
  * Justifikazioa edo proiektuaren azalpena, gehienez ere 30 lerrotan edo 450 hitzetan (aurkezten duen obrari buruzko artistaren adierazpenak).
  * Gehienez ere hamar argazki, kolorean eta kalitate onekoak, (gutxienez bereizmeneko 300 ppp-rekin, jpg formatuan) eta konprimituta (mezu elektroniko bidez bidaliz gero), aurkeztutako proiektuarekin lotura dutenak, eta fitxa teknikoa (izenburua, urtea, erabilitako teknika eta neurri errealak).

**4. Documentación a presentar y plazo**

El plazo de presentación será de un mes y comenzará a computar a partir del día siguiente a la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

La documentación se remitirá mediante email a la dirección **getxoarte@getxo.eus** o se presentará en cualquiera de los lugares previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo de las Administraciones Públicas.

Documentación a presentar:

a. Hoja de solicitud cumplimentada (ANEXO I). Se encuentra disponible en la página web **www.getxo.eus/getxoarte.**

b. Fotocopia del DNI de la persona que figure como solicitante (que en caso de presentarse en grupo figurará como representante), que será la que obtendrá la condición de beneficiaria.

c. Certificado de empadronamiento. En el caso de personas empadronadas en Getxo será suficiente con que se indique esta circunstancia, y se comprobará de oficio

d. Declaración responsable de la persona solicitante certificando que la misma se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Getxo, Hacienda Foral de Bizkaia o con cualquier otra Hacienda Pública foral o estatal, así como con la Seguridad Social. (ANEXO I). El certificado se solicitará tras la resolución.

e. Un dosier en formato DIN-A4. En el caso de envío por email los archivos que se remitirán tanto en formato .doc (Word) como en .pdf:

  * CV y BIO artística de máximo de 10 líneas ó 150 palabras en el que se detalle la experiencia y/o formación vinculada a las artes plásticas y la práctica contemporánea.
  * Statement del/la artista, máximo 10 líneas ó 150 palabras (declaración del artista sobre su obra en general).
  * Justificación o explicación del proyecto en máximo 30 líneas o 450 palabras (declaración del artista sobre la obra en particular que presenta).
  * Como máximo diez fotografías en color de buena calidad, (de al menos 300 ppp de resolución, formato jpg.) y comprimidas (en el caso de envio por email), que guarden relación con el proyecto

Taldean parte hartuz gero, azken bi puntuetan adierazitako agiriak taldeko kide bakoitzak aurkeztu beharko ditu.

Aldiak eta formak betetzen ez dituzten eskariak, edo eskatutako informazioa falta dutenak, ez ditu kontuan hartuko epaimahaiak. Zuzendaritzak informazio osagarria edo proposamenaren inguruko zehaztasunak eskatzeko eskubidea izango du.

Eskaerak adierazitako epetik kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira. Gainera, izapide gehiagorik gabe artxibatuko dira.

**5. Balorazio irizpideak**

1. Getxoarte 2018 barneko ARETOA PROGRAMAn parte hartuko duten artistak aukeratzeari buruzko ebazpena 4. puntuan aipatutako epaimahaiarekin batera egingo da, honako irizpideak kontuan hartuz:

| BALORAZIO-IRIZPIDEAK Gehieneko puntuazioa: 40 puntu | |
|---|---|
| Ibilbide artistiko profesionala, aurkeztutako CV eta BIO kontuan hartuz | 10 puntu, gehienez ere. |
| Obraren sormen-kalitatea, irizpide kontzeptualak, kritikoak eta aurkeztutako proiektuaren produkziokoak kontuan izanik. | 10 puntu, gehienez ere. |
| Aurkeztutako proiektuaren berezitasuna, bikaintasuna eta originaltasuna. Proposatutako esparrura egokitzea. | 10 puntu, gehienez ere. |
| Aurkeztutako proiektuaren ebazpen formala. | 10 puntu, gehienez ere. |

presentado y con ficha técnica (título, año, técnica utilizada y medidas reales)

En caso de participar en grupo, los documentos referidos en los últimos dos puntos se presentarán por cada uno de los integrantes del grupo.

Cualquier solicitud que no se ajuste en tiempo y forma, o que no incluya la información que se requiere, no será tenida en cuenta por el jurado. La dirección se reserva el derecho de pedir información complementaria o especificaciones sobre la propuesta.

La presentación de solicitudes fuera del plazo mencionado dará lugar a la desestimación de dichas solicitudes, archivándose las mismas sin más trámite.

**5. Criterios de valoración**

1. La propuesta de resolución para la selección de los artistas a exponer en el Programa SALÓN dentro Getxoarte 2018 se elaborará por el jurado mencionado en el punto 4 en base a los siguientes criterios:

| CRITERIOS DE VALORACIÓN Puntuación máxima: 40 puntos | |
|---|---|
| Trayectoria artística profesional en base al CV y BIO presentadas. | Hasta 10 puntos. |
| Calidad creativa de la obra, atendiendo a criterios conceptuales, críticos y de la propia producción del proyecto presentado. | Hasta 10 puntos. |
| Singularidad, excelencia y originalidad del proyecto presentado. Adaptación al marco propuesto. | Hasta 10 puntos. |
| Resolución formal del proyecto presentado. | Hasta 10 puntos. |

Eskuratze saria emateko ARETOA programan zehar erakutsitako lanen ebazpen formala baloratuko da.

2. Gehienez HAMAR (10) proposamen aukeratuko dira. Horiez gain beste bi (2) hautatuko dira, erreserba gisa, hautatutako artistek nahi ez dituzten plaza libreak betetzeko.
3. Epaimahaiak eskatzaileek emandako datuak egiaztatzeko eskubidea izango du. Epaimahaiari dagokio obra eta proiektuaren kalitatea ebaluatzea eta artistak hautatzea. Epaimahaiaren ebazpenaren aurka ezingo da errekurtsorik jarri, eta artistei jakinaraziko zaie ekaineko bigarren hamabostaldian zehar.
4. Hauek dira Getxoarte 2018 barneko ARETOA PROGRAMAren epaimahaia osatuko dutenak:

   ZUHAR IRURETAGOIENA
   Artista eta EHU-UPVko irakaslea

   DAVID ARMENGOL
   Komisarioa eta arte kritikoa.

   Getxoarte 2018 saria jasoko duen eta Getxoarte Artium bilduman sartuko den obraren egilea hautatzeko epaimahaiaren osaera hau da:

   Artium Museoaren ordezkaria

   DAVID ARMENGOL
   Komisarioa eta arte kritikoa.

   Eduardo Hurtado
   Getxoarte programen zuzendaria
   (ahotsarekin baina botorik gabe).

**6. Antolakuntzaren erantzukizunak**

Getxoarteko antolakuntzak erakusketa gelaren segurtasun orokorra zainduko du ekimenean zehar. Edonola ere, antolakuntza ez da jendaurreko ordutegian erakutsiko diren lanen segurtasun indibidualaren arduraduna izango, egileak izango direlarik beraien lanen arduradunak ordutegi horretan. Erakusketaren ordutegia ostiraletik igandera arte izango da, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 22:00etara* (larunbatean eta igandean 21:00etan itxiko da). Ordutegia aldatzen baldin bada, aukeratutakoei jakinaraziko zaie.

Para otorgar el premio adquisición se valorará la resolución formal de la pieza/s expuesta/s durante el programa SALÓN.

2. Se seleccionarán un máximo de DIEZ (10) propuestas. Además de éstas, se seleccionarán otras dos (2) a modo de reserva para suplir plazas libres que desestimen los/as artistas seleccionados/as.
3. El jurado se reserva el derecho a comprobar los datos aportados por los solicitantes. Corresponde al jurado evaluar la obra, la calidad del proyecto y seleccionar a los/as participantes. La resolución del jurado será inapelable y se comunicará a los/as artistas durante la segunda quincena del mes de junio.
4. La composición del jurado para el PROGRAMA SALÓN dentro Getxoarte 2018 es la siguiente:

   ZUHAR IRURETAGOIENA
   Artista y Profesora de EHU-UPV

   DAVID ARMENGOL
   Comisario y Crítico de Arte

   La composición del jurado para selección del artista cuya obra será premiada y pasará a formar parte de la Colección Getxoarte Artium en la edición de Getxoarte 2018, es la siguiente:

   Un/a Representante del Museo Artium

   DAVID ARMENGOL
   Comisario y Crítico de Arte

   Eduardo Hurtado
   Director de programas Getxoarte
   - con voz, sin voto-

**6. Responsabilidades de la organización**

La organización de Getxoarte velará por la seguridad general del recinto de exposición durante el transcurso del evento. En ningún caso la organización se hará responsable de la seguridad individual de las piezas expuestas en horario de apertura al público, que quedará a cargo de sus autores/as. El horario de la exposición será de viernes a domingo, de 11:00 a 14:00 y de 17:00 a 22:00 h* (el sábado y domingo se cerrará a las 21:00 horas). Cualquier posible variación en el horario se comunicará a los seleccionados.

**7. Hautatutako proiektuaren titularren betebeharrak**

Artista guztiak aukeratzen direnean, mentorizazio prozesu baten barne sartuko dira, Getxoarteren zuzendaritzak aurrera eramango duena hain zuzen ere. Prozesu horri esker, ekoizpenarekin, edukien edizioarekin eta erakusketa berarekin zerikusia duten dudak argituko dira, eta guztia gidatuko da. Prozesuan lanerako eta bileretako egunak egongo dira.

Erakusketan zehar merkataritza harremanak jorratu ahal izango dira, baina horiek soilik artista eta bezeroaren artekoak izango dira, antolakuntzak ez duelarik horietan esku hartuko.

Getxoarte 2018 barneko ARETOA PROGRAMAn parte hartzean, onartu egingo dira bertako oinarri eta barneko arau guztiak, erabilgarri jarriko den espazioa erabiltzekoak hain zuzen ere. Interpretazioari buruzko dudak Getxoko Kultur Etxeak argituko ditu.

Getxoarte 2018 barneko ARETOA PROGRAMAk egokiak deritzon bitartekoen bidez (hedabideak, espazio birtualak, sare sozialak, etab) eta bidezkoak diren euskarrietan (testuak, argazkiak, bideoak, etab) programa honetan parte hartzen duten proiektuak hedatu ahalko ditu.

Deialdi honetara aurkeztean, oinarri hauek oso-osorik onartzen dira.

**8. Ebazpena eta ordainketa**

Oinarri zehatz hauetan jasotako sariak emateko instrukzio organismoa izango da Kultur Etxeko administrazio unitatea.

Ebazteko organo eskuduna organismoko presidentea izango da, aurretik aipatutako epaimahairen proposamena kontuan hartuta.

Aukeratutakoen saria ordainketa bakarrean ordaindu da, epaimahaiak epaia eman ostean. Ordainketa hori erakusketa egin aurretik gauzatuko da, beharrezkoa baita proiektua bideratu ahal izateko.

Getxoarte eskuratze sariaren ordainketa epaimahaiak epaia eman ondoren egingo da, erakusketa eta gero.

Aukeratuek dirua sartuko den kontuaren zenbakia emango dute. Kontu horretako titularra eskaria egin duen pertsona izan behar da.

**7. Obligaciones del/la titular/es del proyecto seleccionado**

A partir del momento de la selección todos/as los/as artistas se incorporarán a un proceso de mentorización que se llevará a cabo desde la dirección de Getxoarte. Este proceso servirá para guiar y resolver dudas en todos los aspectos que tengan que ver con la producción, la edición de contenidos y la propia exhibición. El proceso estará guiado con una serie de fechas de trabajo y reuniones.

Durante la exposición se podrán llevar a cabo relaciones comerciales, pero éstas se limitarán exclusivamente a artista y cliente, sin intervención alguna por parte de la organización.

La participación en el PROGRAMA SALÓN dentro Getxoarte 2018, supone la aceptación total de sus bases y de las normas internas para la utilización del espacio que se ponga a su disposición. Cualquier duda sobre su interpretación corresponderá resolver al Aula de Cultura de Getxo.

El PROGRAMA SALÓN dentro Getxoarte 2018, podrá difundir, mediante los medios que considere oportunos (medios de comunicación, espacios virtuales, redes sociales, etc.) y en los soportes que procedan (textos, fotografías, videos, etc.) los proyectos participantes en el presente programa.

La presentación a esta convocatoria presupone la aceptación en su totalidad de las presentes bases.

**8. Resolución y pago**

El órgano instructor para la concesión de los premios recogidos en las presentes bases específicas será la unidad administrativa del Aula de Cultura.

El órgano competente para resolver será la Presidente del Organismo, a propuesta del Jurado referido anteriormente.

El abono del premio a los seleccionados se realizará en un solo pago que se producirá tras el fallo del jurado. Dicho pago se producirá con anterioridad a la celebración de la exposición por considerarse necesario para la viabilidad del proyecto.

El abono del premio-adquisición Getxoarte se producirá tras el fallo del jurado con posterioridad a la celebración de la exposición.

En caso de resultar seleccionado/a, se facilitará el número de cuenta en el que hacer el ingreso. En dicha cuenta ha de aparecer como titular la persona que ha realizado la solicitud de la convocatoria.

OPEN CALL

# Salon

**GETXOARTE 2018 BARNEKO "ARETOA"**
**PROGRAMA ESZENIKOAREN DEIALDIAREN ESKARIA**

SOLICITUD DE LA CONVOCATORIA DEL PROGRAMA
ESCÉNICO "SALÓN" GETXOARTE 2018

## ESKATZAILEA / SOLICITANTE

| | |
|---|---|
| **Izen-abizenak edo sozietatearen izena**<br>Nombre y apellidos o razón social | **NAN/IFK**<br>DNI/NIF |
| **Helbidea**<br>Dirección | **Udalerria**<br>Municipio |

| | | |
|---|---|---|
| **Posta Kodea**<br>Código Postal | ☎ | 📱 |

@

## ORDEZKARIA / REPRESENTANTE

| | |
|---|---|
| **Izen-abizenak edo sozietatearen izena**<br>Nombre y apellidos o razón social | **NAN/IFK**<br>DNI/NIF |
| **Helbidea**<br>Dirección | **Udalerria**<br>Municipio |

| | | |
|---|---|---|
| **Posta Kodea**<br>Código Postal | ☎ | 📱 |

@

# Salon

**GETXOARTE 2018 BARNEKO "ARETOA"**
**PROGRAMA ESZENIKOKO DEIALDIAREN ESKAERA**

SOLICITUD DE LA CONVOCATORIA DEL PROGRAMA
ESCÉNICO "SALÓN" GETXOARTE 2018

**ESKAERA /** SOLICITUD

**GETXOARTE 2018 barneko "ARETOA" PROGRAMA ESZENIKOAREN deialdiaren berri izan dut eta oinarriak bere osotasunean onartzen ditut eta lehiaketan parte hartzea eskatzen dut.**

He tenido conocimiento de la convocatoria y bases reguladoras del PROGRAMA ESCÉNICO "SALÓN" GETXOARTE 2018, cuyas bases reguladoras acepto en todos sus extremos y solicito sea admitido al citado concurso.

**Gizarte Segurantzarekiko edo Foru edo Estatuko Ogasun Publikoarekiko betebeharrak eguneratuta ditudala adierazten dut.**

Declaro que me encuentro al corriente de mis obligaciones con la Seguridad Social o con la Hacienda Pública, Foral o Estatal.

**Horretarako, oinarrietan eskatutako dokumentazioa aurkezten dut.**

A tal efecto presento la documentación exigida en las bases.

**NANaren fotokopia /** Fotocopia del DNI

Certificado de hallarse al corriente con Hacienda y la Seguridad Social de cada uno/a de los integrantes del equipo.

Certificado de empadronamiento o documento que acredite la vecindad administrativa en el Estado español (salvo empadronados en Getxo, haciéndose constar esta circunstancia)

**Dosierra /** Dossier

Getxo(n), ______________________

Sinadura / Firma: ______________________

Agiri honetako datu pertsonalak interesdunaren onespenaz jaso dira, tratamendu automatizatua izango dute eta ondorioz, Getxoko Udal eta Erakunde Autonomoetako Informazio Sisteman sartuko dira. Datu horiek udal kudeaketarako soilik erabiliko dira, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoa) aurreikusitakoa gertatzen denean izan ezik, orduan beste administrazio publikoei edo beste batzuei laga edo jakinarazi ahal izango baitzaizkie. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea izango dute Herritarren Arreta Bulegoetan (HAB).

Los datos personales contenidos en el presente documento han sido recogidos bajo el consentimiento de la persona interesada y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Getxo y sus Organismos Autónomos. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras administraciones públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal. Las personas interesadas podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través de las Oficinas de Atención Ciudadana (OAC).